Gestiker
investigación cualitativa

# DINAMIZACIÓN DE FOROS DE AGENDA 21 LOCAL EN ZALDIBAR: "ARANGUREN, GAZAGA, GOIERRI Y URIZAR"

DURANGALDEKO UDAL TALDE 21

# TOKIKO AGENDA 21eko FOROEN DINAMIZAZIOA ZALDIBARREN: "ARANGUREN, GAZAGA, GOIERRI ETA URIZAR"

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa
Mancomunidad de la Merindad de Durango

*ZALDIBAR, 2012ko ekainaren 19a*
*ZALDIBAR, 19 de junio de 2012*

| | | |
|---|---|---|
| **Data**: 2012/06/19<br>**Fecha**: 19/06/2012 | **Ordua**: 19:00 – 20:30<br>**Hora**: 19:00 – 20:30 | **Lekua**: Liburutegia<br>**Lugar**: Biblioteca |

**Parte-Hartzaileak/Asistentes**

**Udaletxeak / Ayuntamientos**

- Arantza Baigorri (Alkatea/Alcaldesa)
- Aitor Arizmediarreta (Zinegotzia/Concejal)
- Carmen Sampedro (Zinegotzia/Concejal)
- José Andrés Urizar (Zinegotzia/Concejal)
- Benito Paco (Zinegotzia/Concejal)
- José Luis Maiztegi (Zinegotzia/Concejal)
- Olaia Araucua (Zinegotzia/Concejal)

**Herritarak / Ciudadanía**

- 10 herritar / 10 ciudadanos

**Kontsultoria / Consultora**

- Olaia Sánchez

| **Bienvenida y exposición de los objetivos** | **Ongietorria eta aurkezpena** |
|---|---|
| Agradecimiento y bienvenida por parte del Ayuntamiento. Se procede a exponer la metodología llevada a cabo para la celebración de foros, todos ellos contextualizados dentro del marco de Agenda Local 21.<br><br>El Ayuntamiento explica que el encuentro de hoy se celebra para dar respuesta a las demandas y solicitudes que los/as ciudadanos/as hicieron en la primera “Auzo Batzarra” celebrada de diciembre del pasado año.<br><br>Antes de proceder a dar cuenta de la actuación municipal, se explica que no todos los requerimientos han podido ser ejecutados, pero si han sido tratados y valorados para poder priorizar entre los mismos | Udaletxeak ongietorria eta eskerrak ematen die bertaratutakoei. Tokiko Agenda 21aren esparruan sartuta dauden foroen metodologiaren azalpenarekin hasten da elkargunea.<br><br>Gaurko foroa abenduan ospatutako “auzo batzarrean” jasotako beharrei eta iradokizunei erantzuna emateko egina izan da.<br><br>Behin aurreko “auzo batzarreko” proposamen guztiak jasota, Udaletxeak hauek aztertu egin ditu, gero ekintza hauen bideragarritasuna gaurko foroan azaltzeko (nahiz eta zenbait ekintza ezin izan diren burutu). |



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

| | |
|---|---|
| aquellos de mayor urgencia y/o viabilidad. | |
| **Respuesta a las Propuestas ciudadanas sobre los barrios Aranguren, Gazaga, Goierri y Urizar** | **Aranguren, Gazaga, Goierri eta Urizar auzoaren inguruko herri proposamenak** |
| ***<u>En el barrio de Gazaga…</u>***<br>▪ **Alumbrado de Gazaga**: Ante la recomendación de la ciudadanía en la colocación de farolas en el barrio, el Ayuntamiento comunica la necesidad de este proyecto en todo el municipio con el objetivo de rebajar el consumo de electricidad. Se trata de un proyecto en proceso de estudio.<br>▪ **Arqueta de Gazaga**: La arqueta por donde baja el agua se encuentra obstruida, y por ello, el aparejador ha analizado la avería. Se trata de una acción en gestión en estos momentos.<br>▪ **Saneamiento en Gazaga**: Para el saneamiento desde Urkitze hasta la zona del Gaztetxe el Ayuntamiento ha solicitado un presupuesto el cual asciende a 250.000 euros. Pese a que el proyecto está desarrollado, dada la situación económica actual, se considera oportuno no llevar a cabo el proyecto en este momento.<br>Desde la ciudadanía se realiza la proposición de la colocación de un pozo séptico, que sería una solución más económica. | ***<u>Gazaga auzoan…</u>***<br>▪ **Gazaga auzoko argiteria**: Farolen ipintzea aztertzear dagoen proiektu bat da, ez bakarrik Gazaga auzoan, herri osoko kontua bait da, elektrizitate kontsumoa jaisteko helburuarekin.<br>▪ **Gazagako kutxatila**: Ura jaisten den kanalean dagoen kutxatila buxatu egiten da, eta horregatik, Udaletxeko aparejadoreak matxura begiratu egin du eta honen konponketarako kudeaketak hasi egin ditu.<br>▪ **Gazagako Saneamentua**: Urkitzetik Gaztetxerako zatiko saneamendurako, Udaletxeak aurrekontua eskatu egin zuen (250.000 eurotako gastua da guztira). Nahiz eta proiektua garatua izan, gaur egungo egoera ekonomikoa dela eta, ekintza hau aurrerago burutzea hausnartu da.<br>Herritarren aldetik, putzu septiko bat jartzea proposatzen da, konponbide merke bat delarik. |

| | |
|---|---|
| ▪ **Colocación de espejos en las bajadas de Gazaga**: Los badenes solicitados en el encuentro anterior ya están colocados.<br>No obstante, los espejos requeridos en la bajada de Gazaga no se pueden colocar ya que estos pueden ser colocados únicamente en los cruces y no en las curvas.<br>Además, en relación al badén que se quiere colocar en Urkitze, ha de mirarse la viabilidad, aunque en principio no se percibe recomendable. | ▪ **Gazagako jaitsieran ispiluak jartzea:** Aurreko batzarrean udalaren aldetik eskatuta zeuden badenak jarrita daude jadanik.<br>Hala ere, Gazagako jaitsieran eskatzen diren ispiluak ezin dira jarri, hauek bidegurutzetan bakarrik kokatu ahal direlako, eta ez bihurgunetan.<br>Gainera, Urkitze baserrian ipini nahi den badenaren inguruko bideragarritasuna aztertu behar da, nahiez eta honen ipintzea ez da gomendagarria sumatzen oraingoz. |
| ***<u>En el barrio de Goierri…</u>*** | ***<u>Goierri auzoan…</u>*** |
| ▪ **Baños públicos**: En relación a los baños públicos solicitados en Goierri, el Ayuntamiento reconoce la necesidad en primer lugar de ser colocados en el centro del municipio. Además, se recuerda la falta de red de alcantarillado en Goierri que imposibilita su colocación.<br>No obstante, se da a conocer la cifra de colocación y mantenimiento de unos baños públicos, cuyo coste asciende a 60.000 euros (más obras).<br>Una vez debatida la viabilidad de la colocación de estos baños, especialmente en Goierrik, se sigue solicitando la colocación de éstos, y la contratación de servicios de limpieza para los mismos. | ▪ **Komun publikoak**: Goierriko komun publikoen inguruan, Udaletxeak lehendabizi erdigunean jartzeko beharra aurkitzen du. Gainera, Goierrik estolderiarik ez dagoenez, zailtasunak daude bertan komun publikoak jartzeko.<br>Honekin batera, Udaletxeak komun publikoen ezarreraren eta mantentzearen aurrekontua aurkezten du foroan (60.000 eurotakoa, obrak gehituta).<br>Behin Goierriko komun publikoen bideragarritasunaren gainean hitz eginda, herritarren aldetik hauen ipintzea berriz eskatzen da, garbiketa zerbitzu batekin batera. |
| ▪ **Pozos sépticos:** Ante el colapso de los pozos sépticos de la zona, el Aparejador municipal ha ido a comprobar la zona. Todavía no se conoce el origen de la fuga. El Ayuntamiento expone la necesidad de pedir un presupuesto para ver la viabilidad de renovar las instalaciones. | ▪ **Hobi septikoak**: Hobi septikoak buxatu egiten direnez, Udal Aparejadoreak gune hori aztertzera joan da, baina oraindik ez da ihesa nondik datorren detektatu. Beraz, aurrekontu bat eskatu beharko de la jakinarazten du Udaletxeak, instalazioen berriztapena zenbateko kostua izango duen ikusteko. |

| | |
|---|---|
| ▪ **Alumbrado del barrio de Santa Marina**: Se reconoce la necesidad de farolas en el barrio pero en una ubicación concreta (por ejemplo al lado de los caseríos y con posibilidad de encender y apagar). En el anterior encuentro se propuso la extensión del cable desde los caseríos, aportando el Ayuntamiento un porcentaje del gasto de la luz consumida por éstos. Sin embargo, las farolas de Santa Marina no están adaptadas para el sistema de "encendido y apagado".<br>Lo que se ha realizado ha sido colocar hormigón con el objetivo de que no puedan robarse los cables. | ▪ **Santa Marina auzoko argiteria**: Zonaldean orokorrean, farolen beharra baieztatzen da, baina kokapen egoki batean (adibidez baserrien ondoan eta jabeek piztu eta itzaltzeko aukerarekin). Aurreko elkargunean baserritarrek kablea botatzea proposatu zuten, gero Udaletxeak argi kontsumo horren ehuneko portzentaje bat ordainduz. Santa Marinako farola mota hauek ez direla egokiak beharraren arabera "piztu eta itzaltzeko" jakinarazten du Udaletxeak.<br>Kable lapurretaren inguruan Udaletxeak ormigoia jarri du arazo hau ekiditeko. |
| ▪ **Túnel de Sorozabal**: La ciudadanía solicita controlar los vertidos provenientes de la limpieza del túnel que van a parar al río y/o solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia un cambio en el protocolo de limpieza. El Ayuntamiento comunica la necesidad de realizar un análisis del agua, para posteriormente, mandar un comunicado a la Diputación Foral de Bizkaia (DFB). | ▪ **Sorozabaleko Tunela**: Herritarrek, tunelaren garbiketa egiterakoan ibaira doazen isuriak kontrolatzea eskatzen dute eta/edo Bizkaiko Foru Aldundiari (BFA) garbiketa mota hauetarako beste protokolo bat eskatzea.<br>Honi lotuta, Udaletxeak lehenengo ur analisi bat egin behar dela ezagutarazten du, BFA.ri gutun bat bidali aurretik. |
| ▪ **Fuente de Sorozabal**: El tubo de la toma de la fuente no se encuentra recubierto de cemento, por lo que se recomienda un control de las posibles filtraciones que puedan ir a parar al rio. La solución pasa por hacer la captación más arriba, en el talud de la autopista por encima del río. Es una obra que requiere mucho trabajo por lo que tendría un presupuesto demasiado elevado para estos momentos. | ▪ **Sorozabaleko iturria**: Iturriko tutua ez dago porlanez estalia, beraz etorkizunean tutu azpian dagoen ibaira isuriak jausiko direla ohartarazten da. Konponbidea, kaptazioa gorago egitea da, autobideko taludean ibaiaren gainetik. Lan asko eskatzen duen gaia denez, momentu honetan garestiegia litzateke obra aurrera eramatea. |
| ▪ **Terreno de Sorozabal:** Los caseríos se encuentran por debajo del nivel del polígono, por lo tanto se advierte del peligro de inundaciones. Se solicita la | ▪ **Sorozabaleko lursaila**: Inguruko baserriek poligonoa baino maila baxuago baten geratu egin dira, beraz urpetzeko arriskua dagoela gogoratzen da. |

| | |
|---|---|
| realización de un estudio realizado por un técnico que compruebe el grado de peligrosidad. Dichos estudios están todavía pendientes, aunque se reconoce que la situación está bajo control. | Baserriek duten urpetzeko arriskua neurtzeko tekniko baten azterketa eskatzen da, dagoen benetako arrisku maila neur dadin. Ikerketa hauek egitear daude oraindik, baina egoera kontrolpean dagoela jakinarazten du Udaletxeak. |
| ▪ **Ruido de la autopista**: Se solicita la colocación de paneles que minimicen el ruido de la autopista, especialmente en Olazar y Solozabal. El Ayuntamiento ha enviado un comunicado con dicho requerimiento a la DFB. Los paneles se sabe que han sido colocados en Berriz, con lo cual, se supone que en un breve espacio de tiempo llegarán a Zaldibar. En caso de retrasarse se volverá a mandar un comunicado a la DFB. | ▪ **Autobideko zarata**: Olazar eta Sorozabal inguruetan batik bat autopistak sortarazten duen zarata murrizteko panelak ezartzea eskatzen da. Udaletxeak BFA.ri eskutitza bidali dio eskaera honekin. Panelak Berrizen jarri dituzte jadanik, beraz, Zaldibarrera denbora gutxian helduko direla suposatzen da. Hau atzeratuz gero, beste eskutitz bat bidaliko da BFA-.ri. |
| ▪ **Coches aparcados junto a la Sociedad**: La ciudadanía pide tomar algún tipo de medida para evitar que los vehículos estacionen en el camino dónde se ubica la Sociedad, puesto que obligan a invadir el carril contrario. El Ayuntamiento recuerda la raya amarilla pintada que indica la prohibición de estacionamiento, por lo que el siguiente paso sería la sanción administrativa. El Ayuntamiento abre debate entre los participantes, el cual da como resultado el acuerdo, por el momento, de pasar avisos únicamente, sin sanciones. | ▪ **Sozietate ondoko kotxe aparkatuak:** Herritarrrek Sozietatea dagoen bidean ibilgailuak aparkatzea debekatzeko neurriren bat hartzea eskatzen da, kontrako gurdibidea inbaditzea eragiten baitute. Udaletxeak gogorarazten du nola aparkatzea debekatzen duen marra horia margotuta dagoela bidean, beraz, hurrengo pausoa isuna jartzea litzateke. Partaideen arteko eztabaidaren ondoren momentuz honako irtenbide hau proposatzen da: Abisuak jarri, baina isunak jarri barik. |
| ***<u>A nivel general…</u>*** | ***<u>Orokorrean</u>*** |
| ▪ **Parada de autobús:** Se requiere colocar un tejado en la parada del bus. Para ello el Ayuntamiento tiene pendiente hablar con Bizkaibus para gestionar este requerimiento. | ▪ **Autobus geltokia:** Bus geltokian aterpe baten premia dagoela gogoratzen da. Udaletxeak Bizkaibusekin kontaktuan jarri behar da behar honen kudeaketa hasteko. |

| | |
|---|---|
| ▪ **Limpieza del río:** Los ciudadanos recuerdan que en los puntos menos accesibles del río, la limpia de éste no se lleva a cabo adecuadamente. Sin embargo, el Ayuntamiento hace saber que en toda la extensión del río habita una especie protegida (El "Bisón Europeo").<br>Debido a esto, el Ayuntamiento no tiene permiso para desbrozar los matorrales de las orillas, sólo la DFB tiene autorización para realizarlo.<br>Sí es posible organizar "Auzolanas" para recoger la basura vertida. | ▪ **Ibai garbiketa:** Herriaren aldatik gogoratzen da nola errekako zenbait puntutan garbiketa ez den ondo egiten. Udaletxeak ezagutzera ematen du Zaldibarko ibaian zehar babestuta dagoen animalia espezie bat bizi dela ("Bisón Europeo"). Hau dela eta, Udaletxeak ezin du ibai hertzeetako sastraka moztu, desbrozasio lanak BFAk bakarrik du baimena egiteko.<br>Dena den, auzolanak antolatu ahal izango dira zaborra jasotzeko. |
| ▪ **Badenes:** Se solicita poner badenes en las casas de al lado de la carretera, así como en el tramo que va desde Sorozabal al polígono.<br>Se recuerda cómo en la zona de arriba (en el camino que llega desde el polígono) sí hay badenes colocados. No obstante, por la parte que sale del pueblo hacia arriba, no hay medidas para disminuir la velocidad, y se está reflexionando al respecto.<br>Los participantes recuerdan la necesidad de colocar badenes también en el propio polígono. | ▪ **Badenak:** Errepide ondoan dauden etxeetan eta Sorozabaletik poligonora doan tartean badenak jartzea eskatzen da. Udaletxeak jakitera ematen du nola goikaldetik (poligonotik datorren bidetik) badenak ezarrita daudela. Herritik irtetzen den zonaldetik gorantz, aldiz, ez dago abiadura moteltzeko neurririk. Kontua hausnartzen ari da Udalean.<br>Honekin batera, partaideek poligono gunean badenak ezartzea beharrezkoa dela azpimarratzen dute. |
| ▪ **Limpieza de los caminos:** Se solicita volver a realizar los trabajos de limpieza de los caminos vecinales mediante grupos de trabajo o 'Auzolanas'. Además, se pide acondicionar las pistas y caminos públicos que han sido cerrados debido al mal estado que presentaban. El Ayuntamiento recuerda la contratación dos veces al año de la empresa Mugarri, para la limpieza de las calles en su totalidad.<br>Por otro lado, desde la Mancomunidad se está trabajando sobre los GRs. Se firmó un acuerdo entre las | ▪ **Auzo bideen garbiketa:** Auzoko bideen garbiketa, berriz ere auzolanen bidez gauzatzea eskatzen da. Horrez gain, publikoak diren zenbait pista eta bide berriro ere zabaltzeko (aurkezten zuten egoera txarra zela eta itxi egin ziren), hauen atontzea proposatzen da. Udalak Mugarri enpresa urtean bi alditan kaleen garbiketarako kontratatzen du.<br>Honekin batera, Mankomunitateak GR-en gainean lan egiten hari da. Akordio bat zinatu zen elkarteen artean garbiketa banantzeko, baina nahiz eta protokoloa eta |

| | |
|---|---|
| diferentes comunidades para determinar la limpieza, pero pese a haber protocolo y registro, no se llevó a cabo. | erregistroa egon, ez da aurrea ateratzen. |
| ▪ **Tasa de saneamiento:** Los participantes recuerdan la tasa de saneamiento que durante años los caseríos han estado pagando a la depuradora sin recibir el servicio a cambio.<br>De cara a solucionar este problema, el Ayuntamiento anota tres alertas: - La tasa puede eliminarse pero en su lugar ha de colocarse un pozo. – A 200 metros de la red de alcantarillado las viviendas han de conectarse. Las obras y la canalización correrían a cargo de los vecinos.<br>- El pozo han de colocarlo los vecinos pero la tasa de mantenimiento correría a cargo del Consorcio.<br>Los ciudadanos no ven justo el pago de estas tasas a cargo de los vecinos, y solicitan que el Ayuntamiento se haga cargo de la colocación de los pozos. | ▪ **Saneamendu tasa:** Urteetan zehar baserritarrek araztegira ordaintzen egon diren saneamendu-tasa gogoratzen da, gero honen zerbitzurik jaso gabe. Udaletxeak zenbait alerta jartzen ditu honen inguruan: - Tasa kendu daiteke baina horren orden putzua jarri beharko da. – Estolderiatik 200 metrotara dauden etxebizitzak konektatu egin behar dira. Obrak eta kanalizazio lanak auzokideen esku egongo lirateke. – Putzua auzokideek jarri beharko lukete. Honen mantentze tasa partzuergoak ordainduko luke ordea.<br>Herritarrek ez dute bidezkoa ikusten tasen ordainketa. Gainera, putzuen ipintzea Udaletxearen kargu egon dezan eskatzen da parte hartzaileen aldetik. |
| ▪ **Eliminación de la nieve:** Se denuncia que las máquinas quitanieves no llegan hasta los caseríos en los días de nevada. El Ayuntamiento deberá mirar qué vías son públicas y privadas, ya que aquellas que no sean públicas no correrán a cargo del servicio de mantenimiento.<br>Además, los participantes recuerdan la necesidad de más sal en los caminos, para que a primera hora de la mañana estos estén listos.<br>En el camino de Gaza, por ejemplo, en la curva bajo el pozo, se acumula hielo y no se llega a eliminar a lo largo del día, resultando peligroso. | ▪ **Elur kentzea:** Elurra dagoenean, elurra kentzeko makina baserrietatik pasatzen ez dela salatzen da. Udaletxeak begiratu beharko du ze bide diren publiko eta ze beste bide pribatu. Pribatuak diren horiek ez dira udaleko garbiketa zerbitzuaren barruan sartuko.<br>Gainera, herritarrek gogorarazten dute gatz gehiago bota behar dela neguan bideak prest egoteko goizeko lehen orduetan. Gazako bidean, adibidez, putzu azpiko bihurgunean, elurra metatzen da, eta ez da kentzen, arriskutsua izanik. |

| | |
|---|---|
| ▪ **Limpieza de las rejillas:** Ante la necesidad de limpiar las rejillas de la entrada debido a las piedras que se arrastran desde arriba, se comunica que prácticamente todas estás limpias. Se atiende especialmente a aquellas con más peligro de desbordarse. | ▪ **Parrillen garbiketa:** Herri sarreran dauden parrillen garbiketa eskatzen zen aurreko foroan, goitik datozen harriak bertan metatzen baitira. Ia parrilla guztiak garbituta daudela jakitera ematen da. Kontuan izaten ohi dira gehien bat metaketa arrisku handigoa duten horiek. |
| **Próximos pasos y Despedida** | **Agurrak eta hurrengo urratsak** |
| Una vez finalizada la exposición, se comunica la metodología del levantamiento del acta, el envío de ésta hacia el Ayuntamiento y su posterior disposición pública a la sociedad de Zaldibar.<br><br>Se vuelve a recordar que el Ayuntamiento dará respuesta a las acciones en los próximos foros a desarrollar.<br><br>Se agradece la asistencia y participación en este Foro, al igual que se aprecia la predisposición de los y las asistentes a participar exponiendo sus inquietudes y preguntas. | Behin aurkezpena bukatuta, gertatutakoa eta proposatutakoa aktan jasota geratuko dela gogoratzen zaie bertaratutakoei. Honez geroztik, akta Udaletxera bidali egingo da, guztiontzako publikoa izanik.<br><br>Proposatutako ekintza guztiei erantzuna emateko, hurrengo foroak erabiliko direla gogorarazten du berriz Udaletxeak.<br><br>Guztion etorrera eta parte-hartzea eskertu egiten da, bakoitzaren proposamenak, ideia berriak eta ardurak baita estimatuz. |